

BIH: OHIKO GALDERAK - DATUEN ERREGISTROA -

AURKIBIDEA

3. DATUEN ERREGISTROA.....	6
3.1. EGINDAKO FAKTUREN ERREGISTRO-LIBURUA	6
3.1.1. Nahitaez bat etorri behar al dute BEZaren autolikidazioak jasotzen duen BEZ sortuak eta egindako fakturen erregistroen ondoriozkoak?.....	6
3.1.2. Faktura sinplifikatua erregistratzen denean, zergaren kuota xehatuta adierazi behar da?.....	6
3.1.3. Zer baldintza bete behar dira BEZaren Erregelamenduaren 63.4 artikuluaaren arabera egindako fakturen idazpen laburgarriak egiteko?	6
3.1.4. Bezero batek bidaiariaren araubidean BEZa itzultzea eskatzen badu, nola erregistratzen da eragiketa?.....	6
3.1.5. Zer eragiketa mota sartzen dira "Araubide bereziaren edo zerga garrantziaren gakoa" eremuan?	7
3.1.6. Zer eragiketa erregistratzen dira egindako fakturen erregistro-liburuko "Hirugarren batzuek edo hartzaileak egina" eremuan?	8
3.1.7. Erregistratu behar al dira BEZari lotu gabeko eragiketak eta BEZari lotuak baino salbuetsiak direnak? Nola?	8
3.1.8. Nola erregistratzen da subjektu pasiboa alderantzikatua duen eragiketa bat?....	9
3.1.9. Nola erregistratzen da Batasun barruko ondasun-entrega bat?	9
3.1.10. Nola erregistratzen da esportazio bat?	9
3.1.11. Nola erregistratzen dira ondasunen autokontsumoko eragiketak (BEZaren 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 9.1 artikuluko a) eta b) letrak)?.....	10
3.1.12. Nola erregistratzen dira ondasunen autokontsumoko eragiketak (BEZaren Foru Dekretu Arauemailearen 9.1 artikuluko c) eta d) letrak)?	10
3.1.13. Nola erregistratzen da egindako faktura bat, bertan hainbat negozio-lokalen errentamendua ageri denean?	10
3.1.14. Fakturaren datuak xehatzean, adierazi behar al da eragiketa ondasun entrega ala zerbitzu prestazioa den?.....	10
3.1.15. Zer informazio jasoko da "likidazio aldia" blokean?.....	10

3.1.16. Nola erregistratzen du fabrikatzaile batek bere banatzaileen bezeroei emandako kupoi, hobari edo deskontuen ondorioz zergaren zerga oinarrian egiten den gutxipena?	11
3.1.17. Nola egiten da hainbat hartzaileko fakturen idazpena?	11
3.1.18. Nola erregistratzen da Foru Administrazioak emandako baimen bati jarraituz zenbakirik gabe egindako faktura bat?	11
3.1.19. Nola erregistratzen da faktura bat, araubide bereziaren gako desberdinak dituzten eragiketak agertzen direnean?	11
3.1.20. Noiz erabiltzen da araubide bereziaren 14 gakoa (Obra ziurtapenetan BEZa sortzeko duten fakturak, hartzailea Administrazio Publikoa denean)?	13
3.1.21. 14 gakoa ("Sortu gabeko BEZ zerga duten fakturak, hartzailea administrazio publiko bat dutena") erabiliz adierazitako obra egiaztapenetan, hasierako erregistroa aldatu behar da kobrantza atzeratzen bada? Eta aurreratzen bada?	14
3.1.22. Noiz erabiltzen da araubide bereziaren 15 gakoa (BEZa sortzeko duten fakturak – Segidako traktuko eragiketak)?	14
3.1.23. 15 "BEZa sortzeko duten fakturak - Segidako traktuko eragiketak" gakoarekin erregistratutako eragiketei dagokienez, aldatu behar al da hasierako erregistroa kobrantza atzeratzen bada? Eta aurreratzen bada?	14
3.1.24. Zer faktura erregistratzen dira "Gasaren Merkatu Antolatuaren Bigarren eta Bosgarren Xedapen Gehigarriko Fakturazioa" markarekin?	15
3.1.25. Zer faktura erregistratzen dira F2 gakoarekin?	15
3.1.26. Erabili al daiteke "Hartzailearen identifikaziorik gabeko faktura, 6.1.d artikulua" marka faktura zuzentzaileetan?	15
3.1.27. Noiz erabili behar da "Araubide bereziaren edo zerga garrantziaren gakoa" eremuko 10 gakoa ("Hirugarrenen kontura kobratzea ordainsari profesionalak edo jabetza industrialetik eratorritako eskubideak, egilearenak edo bazkideen nahiz elkargokideen kontura kobratzeko eginkizun horiek betetzen dituzten sozietate, elkarte, elkargo profesional edo bestelako erakundeek egindakoak") Egindako Fakturen Erregistro Liburuan?	15
3.1.28. Noiz erabiltzen da 17 gakoa, "IX. tituluko XI. kapituluaren aurreikusitako araubideren bati atxikitako eragiketa (OSS eta IOSS)"?	17
3.2. JASOTAKO FAKTUREN ERREGISTRO-LIBURUA	18
3.2.1. Nahitaez bat etorri behar dira BEZaren autolikidazioan aitortzen den BEZ kengarria eta jasotako fakturen erregistroetatik ondorioztatzen dena?	18
3.2.2. Zer dokumentu erregistratzen dira faktura motaren "F6: Kontabilitateko frogagiriak" gakoarekin?	18
3.2.3. Faktura sinplifikatu baten ordean egindako faktura baten hartzaileak halakotzat identifikatu behar du "F3" gakoarekin?	18

3.2.4. Zer baldintza bete behar dira BEZaren Erregelamenduaren 64.5 artikulua arabera jasotako fakturen idazpen laburgarriak egiteko?	18
3.2.5. Faktura sinplifikatua erregistratzen denean, zergaren kuota xehatuta adierazi behar da?	19
3.2.6. Erregistratu behar al da jasotako faktura, salbuetsitako eragiketa batena bada?	19
3.2.7. Erregistratu behar al da jasotako faktura, lotu gabeko eragiketa batena bada?	19
3.2.8. Zer eragiketa mota sartu behar dira "Araubide bereziaren edo zerga garrantziaren gakoa" eremuan?	19
3.2.9. Nola erregistratzen da subjektu pasiboa alderantzikatua duen eragiketa bat (BEZaren 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 84.Bat.2) eta 4) artikulua), Batasun barruko ondasun eta zerbitzuen eskuraketak ez diren beste eragiketa batzuetan badu jatorria?	20
3.2.10. Nola erregistratzen dira Batasun barruko ondasun eta zerbitzu eskuraketak?	20
3.2.11. Nola erregistratzen da inportazio bat?	20
3.2.12. Inportazioarekin parekatutako eragiketak direnean, zer informazio eman behar da?	22
3.2.13. Nola erregistratzen dira 8/2013 Foru Dekretuak onartutako Fakturazio Erregelamenduaren 16.1 artikuluan aipatzen diren nekazaritza, basogintza edo arrantzako konpentsazioen ordainagiriak?	23
3.2.14. Erregistratu behar al da kreditu-entitate batengandik jasotako finantza-zerbitzu salbuetsi bati dagokin ordainagiria, zerbitzu horretarako ez bada nahitaezkoa fakturarik jaulkitzea, 8/2013 Foru Dekretuaren 3.2 artikulua arabera?	23
3.2.15. Erregistratu behar al da aseguru-entitate batengandik jasotako aseguru-eragiketa salbuetsi bati dagokin ordainagiria, eragiketa horretarako ez bada nahitaezkoa fakturarik jaulkitzea, 8/2013 Foru Dekretuaren 3.2 artikulua arabera?	23
3.2.16. Nahitaezkoa al da kuota kengarriari buruzko informazioa ematea?	23
3.2.17. Zer informazio jasoko da "likidazio aldia" blokean?	23
3.2.18. Hainbanaketari buruzko informazioa eman behar da BIH sistemaren bitartez?	24
3.2.19. Entitate batek onartua badu aduanan helbideratzea erraztea (hainbat ADBtako zor laburbiltzailea sortzen duen izapidea), nola egiten da erregistroa?	24
3.2.20. Nola erregistratzen da faktura bat, araubide bereziaren gako desberdinak dituzten eragiketak agertzen direnean?	24
3.2.21. Zer kasutan erabili behar da "LC - Aduanak Likidazioa" gakoa?	26
3.2.22. Nola erregistratzen da ADB baten zuzenketa?	26

3.2.23. Inbertsio ondasun bat eskuratzeagatik jasotako faktura bat erregistratzean, nahitaezkoa da “inbertsio ondasuna” eremua betetzea?	26
3.2.24. Noiz bete behar dira “Ondorengo aldi batean kentzeko”, “Kenkariaren ekitaldia” eta “Kenkariaren aldia” eremuak?	26
3.2.25. Nola erregistratzen da fakturazio akordio baten arabera zenbakirik ez duten fakturak?	26
3.2.26. Faktura zuzentzailea jasotzen duenak “Rx” gakoarekin erregistratu behar du?	26
3.3. INBERTSIO ONDASUNEN ERREGISTRO LIBURUA.....	27
3.3.1. Zer eragiketa sartzen dira?	27
3.4. BATASUNAREN BARRUKO ERAGIKETA JAKIN BATZUEN ERREGISTRO LIBURUA	27
3.4.1. Zer eragiketa sartzen dira?	27
3.4.2. Nola erregistratzen da kontsignan utzitako ondasunak saltzeko akordio baten esparruan egindako ondasunen transferentzia?	28
3.4.3. Kontsignan utzitako ondasunak saltzeko akordio baten esparruan ondasun transferentzia egin delarik, nola erregistratzen da ondorengo ondasun entrega?	30
3.4.4. Nola erregistratzen dira kontsignan utzitako ondasunak saltzeko akordio baten esparruan jasotako ondasunak?	39
3.4.5. Kontsignan utzitako ondasunen salmenta akordio baten esparruan ondasunak jaso ondoren, nola erregistratzen da?	40
3.5. ZERGA GARRANTZIA DUTEN URTEROKO BESTE ERAGIKETA BATZUEN HORNIDURA	44
3.5.1. Zer eragiketa sartzen dira?	44
3.6. KUTXA IRIZPIDEAREN ARAUBIDE BEREZIAREN (KIAB) INGURUKO KONTU BEREZIAK	44
3.6.1. Nola erregistratzen dira, BIH sistemaren bitartez, kutxa irizpidearen araubide bereziko eragiketak?	44
3.6.2. Salmenta bat eginda, epe barruan kobratzen ez bada eta sortzapena eragiketaren ondorengo urteko abenduaren 31n gertatzen bada, zer data erregistratu behar da eragiketaren kobrantza-data moduan?	45
3.6.3. Erosketa bat eginda, epe barruan ordaintzen ez bada eta kenkari-eskubidea eragiketaren ondorengo urteko abenduaren 31n sortzen bada, zer data erregistratu behar da eragiketaren ordainketa-data moduan?	45
3.6.4. Egin al daiteke kutxa irizpidearen araubide bereziko eragiketengatik egindako fakturen laburpen-idazpenik?	45
3.6.5. Nola konpontzen da erregistro-akats bat?	45

3.6.6. Zer epe dago kutxa irizpidearen araubide bereziko eragiketei dagozkien kobrantzen eta ordainketen gaineko informazioa emateko?	45
3.6.7. 2025eko uztailaren 5ean, kutxa irizpidearen araubide berezia erabili behar duen enpresari batek eragiketa bat egin zuen beste enpresari batekin, 5.000 euroko zenbatekoan. Faktura 2025eko abuztuaren 1ean jaulki zuen. Hala ere, 2025eko irailaren 15era arte ez zuen kobratu faktura, eta ordainketa banku transferentziaz egin zen. Noiz eta nola erregistratu behar dira eragiketa horiek?	46
3.7. BIDAIA AGENTZIEN ARAUBIDE BEREZIKO KONTU ESPEZIFIKOAK.....	46
3.7.1. Nola idatzi behar dira bidaia agentzien araubide berezia aplikatzen duten subjektu pasiboek egindako fakturak?	46
3.7.2. Nola idatzi behar dira bidaia agentzien araubide berezia aplikatzen duten subjektu pasiboek jasotako fakturak?	46
3.7.3. Nola erregistratzen dira fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen Fakturazio Erregelamenduaren (8/2013 Foru Dekretuak onartua) hirugarren xedapen gehigarriak xedatutakoari jarraikiz fakturatzen duten bidaia agentzien zerbitzuen prestazioak? ...	47
3.7.4. Nola erregistratzen dira fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen Fakturazio Erregelamenduaren (8/2013 Foru Dekretuak onartua) hirugarren xedapen gehigarriak xedatutakoari jarraikiz fakturatzen duten bidaia agentzien erosketak?	47
3.7.5. Nola idatzi behar dira bidaia agentzien araubide berezia aplikatzen EZ duten subjektu pasiboek jasotako fakturak?	48
3.7.6. Nola erregistratzen dira bidaia agentzien araubide berezia aplikatzen duten subjektu pasiboek beren marjina gordina zehazteko egindako doikuntzak?	48

BIH: OHIKO GALDERAK

3. DATUEN ERREGISTROA

3.1. EGINDAKO FAKTUREN ERREGISTRO-LIBURUA

3.1.1. Nahitaez bat etorri behar al dute BEZaren autolikidazioak jasotzen duen BEZ sortuak eta egindako fakturen erregistroen ondoriozkoak?

Bat etorri ahal izango dira, non eta ez diren egiten, beste eragiketa batzuen artean, Batasun barruko ondasun- eta zerbitzu-erosketak edo subjektu pasiboa alderantzikatua duten estatu barruko eragiketak (eragiketa horiek jasotako fakturen erregistro-liburuan baino ezin dira erregistratu).

3.1.2. Faktura sinplifikatua erregistratzen denean, zergaren kuota xehatuta adierazi behar da?

Faktura sinplifikatuan kuota xehatu gabe agertu arren, egindako fakturen erregistro-liburuan "F2", "F4", eta "R5" gakoak ezarriz gero, nahita ez adierazi behar dira zerga oinarria, zerga tasa eta jasanarazitako kuota. Jasanarazitako kuotaren eremuko zenbatekoa zerga oinarria tasaz biderkatzearen emaitza izan behar da.

3.1.3. Zer baldintza bete behar dira BEZaren Erregelamenduaren 63.4 artikulua arabera egindako fakturen idazpen laburgarriak egiteko?

- Fakturak data berean egitea. Beraz, eguneko idazpen laburgarriak dira.
- Hartzailearen identifikazioa nahitaezkoa ez izatea.
- Eragiketa dokumentatuen sortzapena hilabete natural beraren barruan izatea.

3.1.4. Bezero batek bidaia-aren araubidean BEZa itzultzea eskatzen badu, nola erregistratzen da eragiketa?

Itzulketako agiri elektronikoaren bidez (DER) bidali behar da, honela:

Jakinarazpen mota: A5.

Faktura mota: F1.

Aldia: kuotaren murrizpena gertatzen dena.

Jaulkitzailearen faktura-zenbakia: itzulketako agiri elektronikoa identifikatzeko, AEATk DERari esleitutako erreferentzia zenbakia adierazi behar da, edo, bestela, ILR-a (1)

Araubidea: 02 Esportazioa.

Eragiketa mota: lotuta eta salbuetsi gabe.

Oinarria eta kuota: negatiboan idatziko dira.

Itzultzeko dokumentu elektronikoari (DER) buruzko informazioa bidali behar da bidaia-riak jasandako kuotaren itzulketa zuzentzen duen likidazioa egin eta hurrengo hilaren 16a baino lehen.

DER bat aldatzeko, A6 erabiliko da jakinarazpen mota gisa.

- IAET: AEATk DER agiriari esleitutako erreferentzia-zenbakia.
- ILR: erakunde jaulkitzaileak DER agiriari esleitutako erreferentziako identifikatzaile lokala. Ez da beharrezkoa ILR-rik edukitzea, AEATaren egoitza elektronikoan horretarako dagoen datu-orriaren bitartez aurkezten bada DER agiria.

3.1.5. Zer eragiketa mota sartzen dira “Araubide bereziaren edo zerga garrantziaren gakoa” eremuan?

Hauek dira sartzen diren eragiketak eta dagozkien gakoak:

BALIOAK	DESKRIBAPENA
01	Araubide orokorreko eragiketa
02	Esportazioa
03	Ondasun erabilien, artelanen, zaharkinen eta bildumako objektuen araubide bereziaren aplikazio-eremuan sartzen diren eragiketak
04	Inbertsio-urtearen araubide berezia
05	Bidaia-agentzien araubide berezia
06	BEZeko entitate taldearen araubide berezia (maila aurreratua)
07	Kutxa irizpidearen araubide berezia
08	Ekoizpen, zerbitzu eta inportazioaren gaineko zergari / Kanarietako zeharkako zerga orokorrari lotutako eragiketak
09	Besteren izenean eta kontura ari diren bidaia-agentziek egindako zerbitzuen fakturazioa (8/2013 Foru Dekretuak onartutako Fakturazio Erregelamenduen 3. xedapen gehigarria)
10	Hirugarrenen kontura kobratzea ordainsari profesionalak edo jabetza industrialetik eratorritako eskubideak, egilearenak edo bazkideen zein elkargokideen kontura kobratzeko eginkizun horiek betetzen dituzten sozietate, elkarte, elkargo profesional edo bestelako erakundeek egindakoak
11	Negozio-lokala errentatzeko eragiketak, atxikipenari lotuak
12	Negozio-lokala errentatzeko eragiketak, atxikipenari lotu gabeak
13	Negozio-lokala errentatzeko eragiketak, atxikipenari lotuak eta lotu gabeak
14	Obra ziurtapenetan BEZa sortu gabe duten fakturak, hartzailea Administrazio Publikoa denean
15	Segidako traktuko eragiketetan BEZa sortu gabe duten fakturak

16	BIH erabiltzen hasi aurreko fakturak
17	IX. tituluko XI. kapituluaren aurreikusitako araubideren bati (OSS edo IOSS) atxikitako eragiketa

3.1.6. Zer eragiketa erregistratzen dira egindako fakturen erregistro-liburuko “Hirugarren batzuek edo hartzaileak egin” eremuan?

Fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduak (8/2013 Foru Dekretua) 5. artikuluan jasotako kasua da: “Hartzaileak edo hirugarren batek betetzea faktura jaulkitzeko betebeharra”.

Kontuan hartu beharrekoak:

- Halako fakturek serie-zenbaki desberdin bat eraman behar dute akordio bakoitzerako.
- Fakturazio-erregistroak Foru Ogasunera bidaltzeko epea zortzi egutegi-egunekoa da (zenbaketa horretatik kanpo geratzen dira larunbatak, igandeak eta Gipuzkoako Lurralde Historiko osorako adierazitako jaiegunak).
- “Fakturaren datuak” atalean, “S” laukia markatu beharko da, “Hirugarren batek edo hartzaileak egindako faktura”-ri dagokiona, eta atal horretako gainerako laukitxoak bete beharko dira.

036 ereduaren bitartez jakinaraztea:

Errola-adierazpenaren bitartez (036 ereduak) jakinarazi beharko da aukera hori, baita zein datatik aurrera erabiliko den eta, beharrezkoa bada, uko egin nahi den eta ukoaren ondorio-data zein den (4. ataleko 283 eta 284 laukitxoak; 12. laukitxoak).

3.1.7. Erregistratu behar al dira BEZari lotu gabeko eragiketak eta BEZari lotuak baino salbuetsiak direnak? Nola?

Bai. Faktura egiteko betebeharra dagoenean (8/2013 Foru Dekretuak, fakturazio betebeharrak arautzen dituenak, onartutako Fakturazio Erregelamenduaren 2. eta 3. artikulua), faktura erregistratu behar da.

Eragiketa lotu gabea denean, “Fakturaren xehetasunak” bloke funtzionalaren barruan jasoko da, eremu hauetakoren batean, lotuta ez egoteko arrazoia zein den:

- Zenbateko lotu gabea, 7., 14. eta beste artikulua batzuen arabera.
- Zenbateko lotu gabea, lokalizazio-arauak direla eta.

Salbuetsitako eragiketa bada, “Lotua” eta “Salbuetsia” gisa jasoko da “Fakturaren xehetasunak” blokean, zerga oinarria zein den adierazita eta, aukeran, salbuespenaren arrazoia zein den, gako hauek erabiliz:

- “E1: salbuetsita 20. artikulua eragikatik”
- “E2: salbuetsita 21. artikulua eragikatik”
- “E3: salbuetsita 22. artikulua eragikatik”
- “E4: salbuetsita 23. edo 24. artikulua eragikatik”

- “E5: salbuetsita 25. artikulua rengatik”
- “E6: salbuetsita beste batzuegatik”

Informazio hori eduki ezean, nahikoa izango da salbuetsitako eragiketa bat dela adieraztea.

Fakturan salbuetsita egoteko beste arrazoren bat duten eragiketak ageri badira, haietako bakoitzari dagokion oinarri salbuetsiaren zenbatekoa xehatu ahal izango da.

3.1.8. Nola erregistratzen da subjektu pasiboa alderantzikatua duen eragiketa bat?

Bezeroak Espainiako enpresak badira, hornitzaileak edo zerbitzu-emaileak Egindako Fakturen Erregistro Liburuan jasoko ditu fakturaren datuak, “Fakturaren xehetasunak” bloke funtzionalean gako hau jarrita: “S2: Lotua –Salbuetsi gabea – Subj. Pasb. alderantziketa”. “Zerga tasa” eta “Jasanarazitako kuota” eremuetan zero zenbatekoa jarriko da.

Bezeroak IZF-BEZ zenbakia duten Europar Batasuneko enpresak badira, zerbitzu-emaileak Egindako Fakturen Erregistro Liburuan jasoko ditu fakturaren datuak, “Eragiketa motaren xehetasunak” bloke funtzionalean gako hau idatzirik: “Zenbateko lotu gabea, lokalizazio-arauak direla eta”. Era berean, adierazi beharko da ondasun-entrega edo zerbitzu-prestazioa den.

3.1.9. Nola erregistratzen da Batasun barruko ondasun-entrega bat?

Batasuneko bezeroari egindako faktura Egindako Fakturen Erregistro Liburuan idatziko da, egoitza-herrialdeko identifikazio moten eremuan (“IDType”) 2 gako eta “ID” eremuan Batasun barruko operatzaile-zenbakia jarrita. “Herrialde kodea” eremua ez da nahitaez betetzekoa.

Bestalde, fakturaren zerga oinarria “Entrega” blokean sartuko da, eragiketa motaren “Salbuetsia” eremuan eta “Eragiketa motaren xehetasunak” adieraziz. Salbuespen-arrazoi gisa “E5: salbuetsita 25. artikulua rengatik” gako idatziko da.

3.1.10. Nola erregistratzen da esportazio bat?

Egindako Fakturen Erregistro Liburuan idatzi behar da eragiketa.

“Araubide bereziaren edo zerga garrantziaren gako” eremuan, 02 balioa jarri behar da.

Bezeroa identifikatu beharko da –atzerrikoa bada– “Herrialde kodea” eremuaren eta “IDType” eremuko gako hauen bitartez: 3 “Pasaportea”, 4 “Egoitza-herrialde edo lurraldeak jaulkitako identifikazio-agiri ofiziala”, 5 “Egoitza-ziurtagiria” edo 6 “Beste frogagiri bat”.

Bestalde, fakturaren zerga oinarria “Entrega” blokean sartuko da, eragiketa motaren “Salbuetsia” eremuan eta “Eragiketa motaren xehetasunak” adieraziz. Salbuespen-arrazoi gisa “E2: salbuetsita 21. artikuluaengatik” gakoa jarriko da.

3.1.11. Nola erregistratzen dira ondasunen autokontsumoko eragiketak (BEZaren 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 9.1 artikuluko a) eta b) letrak)?

Ondasun entregekin parekatutako eragiketak dira (“kanpo” autokontsumokoak ere deituak) eta Egindako Fakturen Erregistro Liburuan jaso behar dira, zerga kalifikazioaren arabera, berezitasun nabarmenik gabe.

3.1.12. Nola erregistratzen dira ondasunen autokontsumoko eragiketak (BEZaren Foru Dekretu Arauemailearen 9.1 artikuluko c) eta d) letrak)?

Ondasun entregekin parekatutako eragiketak dira (“barne” autokontsumoak ere deituak) eta Egindako Fakturen Erregistro Liburuan jaso behar dira, zerga kalifikazioaren arabera. Bi kasuetan, bat etorriko dira fakturaren egilearen identifikazioa eta kontrako alderdiarena.

3.1.13. Nola erregistratzen da egindako faktura bat, bertan hainbat negozio-lokalen errentamendua ageri denean?

Jaulkitako faktura erregistratzeko, araubide bereziko “11” eta “12” gakoak erabiliko dira, errentamendua atxikipenik daukan kontuan hartuta, eta “13” gakoa erabiliko da fakturan bi errentamendu mota horiek agertzen badira.

Atxikipenik gabeko errentamendua bada (“12” eta “13” gakoak), kokapen gakoa eta katastroko erreferentzia zenbakia zehaztu beharko da lokal bakoitzerako.

Katastroko erreferentziak 15 baino gehiago badira, jaulkitako fakturen XMLan lehen 15ak bidaliko dira, eta gainerakoak horretarako XML berezi batean.

3.1.14. Fakturaren datuak xehatzean, adierazi behar al da eragiketa ondasun entrega ala zerbitzu prestazioa den?

Bezeroa atzerritarra denean, datuak eragiketa-mailan xehatuko dira derrigor (“ID beste bat” mota, salbu eta gakoa 07 denean edo N letrarekin hasten denean IFZ) eta faktura sinplifikatua edo idazpen laburgarria ez denean.

3.1.15. Zer informazio jasoko da “likidazio aldia” blokean?

Erregistratutako fakturari dagokion eragiketaren sortzapen ekitaldia eta aldia. Datuak faktura egin eta hurrengo 4 egunetan eman behar dira. Kontuan hartu behar da egutegiko lau/zortzi eguneko epetik kanpo geratzen direla larunbatak, igandeak, eta Gipuzkoako Lurralde historiko osorako adierazitako jaiegunak.

Adibidea: A enpresariak B enpresariari salgai batzuk saldu dizkio 2025eko uztailaren 6an. A enpresariak abuztuaren 2an egin du faktura. A enpresariak abuztuaren 7an bidaliko ditu fakturaren erregistroak, eta hau idatziko du egindako fakturen erregistro-liburuan: Ekitaldia: 2025, Aldia: 07.

Faktura zuzentzaileak direnean, aitorpen-likidazioaren zuzenketari dagozkion ekitaldia eta aldia idatziko dira, BEZaren 3/2023 FDaren 89. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.1.16. Nola erregistratzen du fabrikatzaile batek bere banatzaileen bezeroei emandako kupoi, hobari edo deskontuen ondorioz zergaren zerga oinarrian egiten den gutxipena?

Halakoetan, fabrikatzaileak faktura zuzentzailearen jatorrizkoa egiten du soilik, eta ez zaio kopiari eman behar banatzaileari, hark ez dituelako zuzendu behar, ez sortutako kuotak, ez haren kenkariak.

Informazio hori “Faktura mailako xehakapena” bloke funtzionalean bidali beharko da, “kupoi” eremua markaturik.

Eremu hori R1, R5 (faktura zuzentzaile sinplifikatua) eta F4 (fakturen idazpen laburgarria) gakoekin bateragarria da.

Adibidez: erakunde banatzaileak 121 euroko deskontua eskaintzen badie kontsumitzaileei, eta fabrikatzaileak ordaintzen badu zenbateko hori, azken horrek 100 euro gutxituko ditu zerga oinarrian (121 €/1,21).

3.1.17. Nola egiten da hainbat hartzaileko fakturen idazpena?

Haietako bat identifikatuko da hartzaile gisa, eta “Hainbat hartzaile dituen faktura” eremua markatuko da.

3.1.18. Nola erregistratzen da Foru Administrazioak emandako baimen bati jarraituz zenbakirik gabe egindako faktura bat?

F1 gakoarekin erregistratuko da, eta sekuentzia-zenbaki bat esleituko zaio faktura horri. Zenbaki hori ezingo da izan data eta jaulkitzaile berarekin jakinarazitako beste baten berdina.

3.1.19. Nola erregistratzen da faktura bat, araubide bereziaren gako desberdinak dituzten eragiketak agertzen direnean?

Sistemak gako hauek konbinatzeko aukera ematen du:

Gako bateragarriak	
07 - Kutxa irizpidearen araubide berezia	01.- Araubide orokorra
	03 - Ondasun erabilien araubide berezia
	05 - Bidaia agentzien araubide berezia
	09 - Bidaia agentziak
	11, 12 eta 13 - Negozio-lokalaren errentamendua
	14 - Sortzeko dagoen BEZa. Obra publikoko ziurtapenak
05 - Bidaia agentzien araubide berezia	15 - Sortzeko dagoen BEZa. Segidako traktua
	01.- Araubide orokorra
	06 - BEZeko entitate taldeen araubide berezia (maila aurreratua)
	07 - Kutxa irizpidearen araubide berezia
	08 - Kanarietako zeharkako zerga orokorrari / ekoizpen, zerbitzu eta inportazioaren gaineko zergari lotutako eragiketak
06 - BEZeko entitate taldeen araubide berezia (maila aurreratua)	11, 12 eta 13 - Negozio-lokalaren errentamendua
	05 - Bidaia agentzien araubide berezia
	11, 12 eta 13 - Negozio-lokalaren errentamendua
	14 - Sortzeko dagoen BEZa. Obra publikoko ziurtapenak
11, 12 eta 13 - Negozio-lokalaren errentamendua	15 - Sortzeko dagoen BEZa. Segidako traktua
	06 - Entitate multzoa (maila aurreratua)
	07 - Kutxa irizpidearen araubide berezia
	08 - Kanarietako zeharkako zerga orokorrari / ekoizpen, zerbitzu eta inportazioaren gaineko zergari lotutako eragiketak
	15 - Sortzeko dagoen BEZa. Segidako traktua

03 - Ondasun erabilien araubide berezia	01.- Araubide orokorra
	02 - Esportazioa
	05 - Bidaia agentzien araubide berezia
01.- Araubide orokorra	07 - Kutxa irizpidearen araubide berezia
	08 - Kanarietako zeharkako zerga orokorrari / ekoizpen, zerbitzu eta inportazioaren gaineko zergari lotutako eragiketak
08- Kanarietako zeharkako zerga orokorrari / ekoizpen, zerbitzu eta inportazioaren gaineko zergari lotutako eragiketak	02 - Esportazioa

07 gakoak (Kutxa-irizpidea) jakinaraziko den lehen gakoa izan behar du beti.

05 gakoa (bidaia agentziak) jakinarazi beharreko lehen gakoa izango da, non eta ez den 07 gakoarekin batera adierazten (Kutxa irizpidearen araubide berezia).

06 gakoa (BEZeko entitate taldeen araubide berezia – maila aurreratua) jakinarazi beharreko lehen gakoa izango da 11, 12, 13, 14 eta 15 gakoekin batera adierazten denean.

03 gakoa (Erabilitako ondasunen, arte objektuen, zaharkinen eta bilduma objektuen araudi berezia aplikatzen zaien eragiketak) jakinarazi beharreko lehen gakoa izango da 01 gakoarekin batera adierazten denean.

08 gakoa (Kanarietako zeharkako zerga orokorrari / ekoizpen, zerbitzu eta inportazioaren gaineko zergari lotutako eragiketak) jakinarazi beharreko lehen gakoa izango da 02 gakoarekin batera adierazten denean (Esportazioak).

Konbinazio horrek ez du esan nahi gako bakoitzeko zenbatekoak xehatu behar direnik, baina gogoan hartu beharko dira jakinarazi beharko diren eremu gehigarri guztiak, gako bakoitza kontuan harturik.

3.1.20. Noiz erabiltzen da araubide bereziaren 14 gakoa (Obra ziurtapenetan BEZa sortzeko duten fakturak, hartzailea Administrazio Publikoa denean)?

Egindako obra ziurtapenei dagokien informazioa bidaltzeko erabiltzen da gako hori, hartzailea Administrazio publikoa denean, inguruabar hauek direla medio zerga sortu ez bada:

- Gauzatutako obraren zatiari dagokion zenbatekoa ez da guztiz edo partez ordaindu.

- Obra ez da jaso, guztiz edo partez, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 210. artikuluan adierazitakoaren arabera.

3.1.21. 14 gakoa ("Sortu gabeko BEZ zerga duten fakturak, hartzailea administrazio publiko bat dutena") erabiliz adierazitako obra egiaztapenetan, hasierako erregistroa aldatu behar da kobrantza atzeratzen bada? Eta aurreratzen bada?

Hartzailea administrazio publiko bat denean, obra ziurtapenaren kobrantza atzeratzen bada eta 14 "BEZa sortu gabe duen faktura" gakoarekin erregistratu bada, obra oraindik guztiz edo partez hartu ez delako, erregistroan aldaketa bat egin beharko da A1 komunikazio motaren bitartez; halakoetan, kobratzeko aurreikusitako data berria jaso beharko da eragiketaren data gisa, eta hari dagokion likidazio aldia idatzi beharko da.

Ziurtapena aurreikusitako data baino lehen kobratzen bada, jaulkitzaileak honako hauek egin beharko ditu:

- jasotako ordainketaren ondorioz jaulki den faktura erregistratu, eragiketa motaren gako orokorrak erabiliz.
- 14 gakoarekin erregistratu den obra ziurtapenaren hasierako erregistroa aldatu, zerga oinarrian eta guztizko zenbatekoan aldeztatik kobratutako zenbatekoak gutxituz. Ziurtapen osoa ordaindu bada aurrez, zero adierazi beharko da erregistro horretan.

3.1.22. Noiz erabiltzen da araubide bereziaren 15 gakoa (BEZa sortzeko duten fakturak – Segidako traktuko eragiketak)?

Segidako traktuko eragiketak (hornidurak, errentamenduak...) jasotzen dituzten dokumentuei buruzko informazioa bidaltzeko erabiltzen da gako hori, baldin eta, 8/2013 Foru Dekretuak onartutako Fakturazio Erregelamenduaren 6. edo 7. artikuluetan adierazitako baldintzak bete arren, ez badira fakturatzat hartzen, zerga ez baita oraindik sortu, inguruabar hauek direla bide:

- Jaulkitze-datan ezin da exijitu fakturaturako zenbatekoa.
- Ez da ordaindu guztiz edo partez.

Kontuan hartu behar da exijigarritasun (sortzapen) data idatzi beharko dela eragiketa data gisa, eta, era berean, horrek erabakiko duela zein likidazio aldi jakinarazi beharko den.

3.1.23. 15 "BEZa sortzeko duten fakturak - Segidako traktuko eragiketak" gakoarekin erregistraturako eragiketei dagokienez, aldatu behar al da hasierako erregistroa kobrantza atzeratzen bada? Eta aurreratzen bada?

Kobrantza atzeratzen bada ez da aldaketarik egin beharko erregistroan; izan ere, ordainketa eskagarria denean sortzen da zerga, berdin dio ordainketa noiz egiten den (salbu eta kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen zaien eragiketak).

Aurreikusitako data baino lehen kobratzen badira, hornitzaileak edo zerbitzu-emaileak honako hauek egin beharko ditu:

- jasotako ordainketaren ondorioz jaulki den faktura erregistratu, F1 gako orokorra erabiliz.
- 15 gakoarekin jasotako erregistroa aldatu, zerga oinarriari eta guztizko zenbatekoari aldeztu aurretik kobratutako zenbatekoak gutxituz. Aurreratutako ordainketaren bidez prezio osoa ordaintzen bada, erregistro hori zero bihurtuko da.

3.1.24. Zer faktura erregistratzen dira “Gasaren Merkatu Antolatuaren Bigarren eta Bosgarren Xedapen Gehigarriko Fakturazioa” markarekin?

Hirugarren batzuek arauen eskariz jaulkitakoak soilik, 8/2013 Foru Dekretuaren bigarren eta bosgarren xedapen gehigarriaren eta Gasaren Merkatu Antolatuaren arabera.

3.1.25. Zer faktura erregistratzen dira F2 gakoarekin?

- Faktura sinplifikatuak, salbu eta 8/2013 Foru Dekretuak, fakturazio-betebeharrak arautzeko Erregelamendua onartzen duenak, 7.2 eta 7.3 artikuluetan arautzen dituen faktura sinplifikatu kualifikatuak.
- Faktura osoak, haietarako ez bada nahitaezkoa hartzailearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia jasotzea, aipatutako 8/2013 Foru Dekretuak, fakturazio-betebeharrak arautzeko Erregelamendua onartzen duenak, 6.1.d) artikuluan aurreikusitakoa betez. Halako fakturen ezaugarria da haietan ez dela identifikatzen hartzailearik. Faktura horiek berariazko marka batekin idatziko dira egindako fakturen erregistro liburuan.

3.1.26. Erabili al daiteke “Hartzailearen identifikaziorik gabeko faktura, 6.1.d artikulua” marka faktura zuzentzaileetan?

Marka hori bateragarria da R5 gakoarekin erregistratutako faktura zuzentzaileekin.

3.1.27. Noiz erabili behar da “Araubide bereziaren edo zerga garrantziaren gakoa” eremuko 10 gakoa (“Hirugarrenen kontura kobratzea ordainsari profesionalak edo jabetza industrialetik eratorritako eskubideak, egilearenak edo bazkideen nahiz elkargokideen kontura kobratzeko eginkizun horiek betetzen dituzten sozietate, elkarte, elkargo profesional edo bestelako erakundeek egindakoak”) Egindako Fakturen Erregistro Liburuan?

Elkarteek, elkargo profesionalak edo BIHn ordainsari profesionalak edo jabetza intelektualetik eratorritako eskubideak, egilearenak edo bazkideen nahiz elkargokideen kontura kobratutako beste batzuen berri emateko sartuta dauden beste entitate batzuek soilik erabili behar dute 10 gakoa. Kobrantza horiek ez dira faktura batean dokumentatzen; besterik gabe, 10 gakoa duen fakturazio erregistro gisa jakinarazi behar dira BIHn. Elkarateak edo elkargoak kideari egindako ordainketaren frogagiriari

esleitutako zenbakia idatziko da faktura zenbaki gisa, eta elkarteak edo elkargoak kobrantza jaso duen data izango da jaulkitze data. Kontrako alderdia elkartekidea izango da, zeinen kontura kobratu duten. Eragiketa honela identifikatuko da. "Lotu gabea, 7., 14. eta beste artikulua batzuegatik", eta ordaindutako zenbateko osoa adieraziko da.

Elkarteak emandako zerbitzua dokumentatzen duen faktura kidearen Egindako Fakturen Erregistro Liburuan erregistratu beharko da, berdin dio faktura elkarteak, elkargokideak edo beste entitate batek jaulki duen elkartekidearen izenean.

10 gakoa EZ da erabiliko eragiketa hauetarako:

- Elkarteak, elkargo profesionalak edo entitateak berak beren bazkideei emandako zerbitzuak. 01 gakoarekin erregistratu beharko dira (non eta ez dagokion beste gako espezifiko bat).
- Elkarteak, elkargo profesionalak edo entitateak birfakturazioa egitea bazkideek bezeroei emandako zerbitzuegatik. Kasu horretan, kideak elkarteari, elkargo profesionalari edo entitateari bidaliko dio emandako zerbitzuen ondoriozko faktura, eta hark bere izenean bidaliko dio bezeroari. Bi fakturak 01 gakoarekin erregistratuko dira (non eta ez dagokion beste gako espezifiko bat) kidearen eta elkartearen, elkargoaren edo entitatearen erregistro-liburuan, hurrenez hurren.

Adibidez: Elkargo profesional batek, 202X(e)ko urtarrilaren 11n, 12.100 € kobratu ditu elkargokideetako batek emandako zerbitzu baten ondorioz, eta elkargoak elkargokidearen izenean jaulkitako faktura honetan dokumentatu da zerbitzua:

Faktura zenbakia: 1/202X-A

Jaulkitze data: 202X(eko) urtarrilaren 2a

Zerga oinarria: 10.000 €

Tasa: % 21

Kuota: 2.100 €

Ordainketaren frogagiria honela zenbakitu da: 5/202X

Elkargoak EFELen egindako erregistroa:

Faktura zenbakia: 5/202X

Fakturaren jaulkitze data: 202X-01-11

Kontrako alderdiaren datuak: elkargokidearen IFZ eta izena

Zenbatekoa guztira: 12.100 €

10 gakoa

Lotu gabeko eragiketa

Elkargokideak EFELen egindako erregistroa:

Faktura zenbakia: 1/202X-A

Fakturaren jaulkitze data: 202X-01-02

Kontrako alderdiaren datuak: IZF eta zerbitzua jasotzen duen bezeroaren izena

Zenbatekoa guztira: 12.100 €

01 gakoa

Lotutako eta salbuetsi gabeko eragiketa

Zerga oinarria: 10.000 €

Tasa: % 21

Jasanarazitako kuota: 12.100 €

3.1.28. Noiz erabiltzen da 17 gakoa, “IX. tituluko XI. kapituluan aurreikusitako araubideren bati atxikitako eragiketa (OSS eta IOSS)”?

17 gakoa erabiliko da Espainiako BEZari edo beste estatu kide bati lotutako eragiketak dokumentatzen dituzten fakturak erregistratzeko, horiek erregistratzera behartuta dagoenak BEZaren 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen XI. kapituluan aurreikusitako araubide berezietako bati heldu badio:

- Batasunaren araubidea
- Inportazio araubidea (IOSS)

1. adibidea: *Espainian Zergaren Aplikazioko Lurraldean (ZAL) kokatutako “A” entitateak Batasunaren araubideari heldu dio, eta ekintza horrek 202X(e)ko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak (identifikazioko estatu kidea: Espainia). Uztailaren 20an, salmenta bat egin dio Frantzian kokatutako partikular bati, eta ZALetik bidali dizkio ondasunak. Frantzian aplikatzen den tasa orokorra % 20 da. Ondasunen salmenta prezioa 200 € da, Frantziako BEZa kenduta.*

“A”-k egindako salmentak % 20ko zerga tasa izango du Frantzian (10.000 €-tik gorako salmentak egiten dizkie beste Estatu kide batzuetako partikularrei).

“A”-k Batasunaren araubidearen bitartez jaulki du egindako salmentaren faktura eta ordaindu du Frantziako BEZa (369 eredua).

Jaulki den faktura araubide bereziaren 17 gakoa erabiliz erregistratuko da BIHn, eta 200 idatziko da “Lotu gabea” blokeko “lokalizazio arauen arabera ez lotua bezala” eremuan.

Faktura osoa jaulkitzen bada, eragiketa motaren arabera xehatuko da, ondasun entrega dela adieraziz.

Faktura sinplifikatua jaulkitzen bada, faktura mailan xehatuko da.

2. adibidea: *1. adibideko enpresariak, uztailaren 25ean, Penintsulan kokatutako azken kontsumitzaile bati saldu dizkio ondasunak. Salmentaren zenbatekoa 1.000 € da, tasa orokorreko BEZa kenduta.*

Kasu honetan, “A”-k egindako salmentaren zergak Espainian ordainduko dira. Salmenta hori, ezin denez Batasunaren araubidearen bitartez aitortu, 303 ereduaren bitartez sartuko da.

Kasu honetan, ez da erabiliko 17 gakoa “A”-k egindako faktura BIHn erregistratzeko, eta “Lotua / salbuetsi gabea” blokea bete beharko da, tasa, oinarria eta kuota adieraziz.

3. adibidea: *1. adibideko enpresariak, uztailaren 30ean, Txinatik inportatutako ondasunak saldu dizkio Penintsulan kokatutako azken kontsumitzaile bati. Salmentaren zenbatekoa 100 € da, tasa orokorreko BEZa kenduta. “A” inportazio araubideari atxikita dago 202X(e)ko uztailaren 1etik.*

Kasu honetan, “A”-k egindako salmentaren zergak Espainian ordainduko dira, inportazio araubidearen bitartez (369 eredua).

Jaulki den faktura araubide bereziaren 17 gako erabiliz erregistratuko da BIHn, eta "Lotua / salbuetsi gabea" blokea bete beharko da, tasa, oinarria eta kuota adieraziz.

Inportazioa dela eta, "A"-k administrazio-dokumentu bakarra (ADB) edo H7a erregistratu beharko ditu.

3.2. JASOTAKO FAKTUREN ERREGISTRO-LIBURUA

3.2.1. Nahitaez bat etorri behar dira BEZaren autolikidazioan aitortzen den BEZ kengarria eta jasotako fakturen erregistroetatik ondorioztatzen dena?

Biak bat etorri ahal izango dira, salbu eta, besteak beste, kenkaria ez denean aplikatzen faktura jaso den likidazio aldian, beste batean baizik, sortzapena gertatu eta hurrengo lau urteen barruan.

3.2.2. Zer dokumentu erregistratzen dira faktura motaren "F6: Kontabilitateko frogagiriak" gakoarekin?

Bi dokumentu mota sartzen dira:

- Eragiketaren kontabilitate-idazpenen euskarri den edozein dokumentu, Batasunean kokatuta ez dagoen enpresari edo profesional batek egiten duenean eragiketa (8/2013 Foru Dekretuak onartutako Fakturazio Erregelamenduaren 2.4 artikulua).
- Fakturatzat hartu ez arren, kenkaria egiteko eskubidea ematen duten dokumentuak. Liburuaren titularrak esleitutako zenbakiarekin erregistratuko dira, eta zenbaki hori ezingo da izan data eta jaulkitzaile berarekin jada jakinarazitako beste baten berdina.

Adibideak: *higiezin baten salerosketa-eskritura publikoa, fakturarik jaulki ez denean; Fakturazio Erregelamenduaren 16.1 artikuluan aipatutako nekazaritza, basogintza edo arrantzako konpentsazioen ordainagiriak.*

3.2.3. Faktura sinplifikatu baten ordeztu egindako faktura baten hartzaileak halakotzat identifikatu behar du "F3" gakoarekin?

Jasotako fakturak direnean, eremu hori aukerakoa da.

3.2.4. Zer baldintza bete behar dira BEZaren Erregelamenduaren 64.5 artikuluan arabera jasotako fakturen idazpen laburgarriak egiteko?

- Fakturak data berean jaso behar dira.
- Hornitzaile bakarrarenak izan behar dira.
- Eragiketen zenbateko osoa, BEZik gabe, ezin da izan 6.000 € baino gehiago.
- Faktura bakoitzean dokumentatutako eragiketen zenbatekoa ezin da izan 500 € baino gehiago, BEZa sartu gabe.

3.2.5. Faktura sinplifikatua erregistratzen denean, zergaren kuota xehatuta adierazi behar da?

Oro har, ez da beharrezkoa. "F2", "F4" (faktura sinplifikatuen idazpen laburgarria) eta "R5" gakoak markatuz, zerga tasa eta bi eremu hauetako bat soilik bete beharko dira: zerga oinarria edo zenbateko osoa. Zenbateko osoa soilik adierazten bada, zerga oinarriak "zero" balioa izan beharko du.

Lotutako eta salbuetsi gabeko eragiketa xehatzean zerga tasa bat baino gehiago jarri bada, nahitaez jakinarazi beharko dira zerga oinarria eta zerga tasa.

3.2.6. Erregistratu behar al da jasotako faktura, salbuetsitako eragiketa batena bada?

Bai, kontuan hartzen badugu fakturaren zenbatekoari dagozkion eremuetan "zerga oinarria" soilik adierazi behar dela, eta *"kuota kengarria" zero dela adierazi.*

3.2.7. Erregistratu behar al da jasotako faktura, lotu gabeko eragiketa batena bada?

Bai, kontuan hartzen badugu fakturaren zenbatekoari dagozkion eremuetan "zerga oinarria" soilik adierazi behar dela, eta *"kuota kengarria" zero dela adierazi.*

3.2.8. Zer eragiketa mota sartu behar dira "Araubide bereziaren edo zerga garrantziaren gakoak" eremuan?

Hauek dira sartzen diren eragiketak eta dagozkien gakoak:

BALIOAK	DESKRIBAPENA
01	Araubide orokorreko eragiketa
02	Eskurapenetan nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezian dauden pertsonen konpentsazioak ordaintzen dizkieten enpresarien eragiketak
03	Ondasun erabilien, artelaren, zaharkinen eta bildumako objektuen araubide bereziaren aplikazio eremuan sartzen diren eragiketak
04	Inbertsio urrearen araubide berezia
05	Bidaia agentzien araubide berezia
06	BEZeko entitate taldearen araubide berezia (maila aurreratua)
07	Kutxa irizpidearen araubide berezia
08	Ekoizpen, zerbitzu eta inportazioaren gaineko zergari / Kanarietako zeharkako zerga orokorrari lotutako eragiketak
09	Europar Batasunaren barruko ondasun eta zerbitzuen eskuraketak

12	Negozio lokala errentatzeko eragiketak
13	Inportazio bati dagokion faktura (administrazio-dokumentu bakar bati lotu gabe jakinarazia)
14	BIH erabiltzen hasi aurretik jasotako beste faktura batzuk

3.2.9. Nola erregistratzen da subjektu pasiboa alderantzikatua duen eragiketa bat (BEZaren 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 84.Bat.2) eta 4) artikulua), Batasun barruko ondasun eta zerbitzuen eskuraketak ez diren beste eragiketa batzuetan badu jatorria?

Eragiketaren hartzaileak "Subjektu pasiboaren alderantziketa" eremua betez erregistratuko ditu fakturaren datuak. Faktura horretan jasanarazitako kuota kalkulatu eta idatzi beharko du, eta "Kuota kengarria" eremua ere bete.

Ez du inolako daturik erregistratuko Egindako Fakturen Erregistro Liburuan.

3.2.10. Nola erregistratzen dira Batasun barruko ondasun eta zerbitzu eskuraketak?

Batasuneko hornitzailearengandik jasotako faktura erregistratzeko, Jasotako Fakturen Erregistro Liburuan adieraziko da faktura, eta bertan identifikatuko da, egoitza herrialdearen identifikazio moten eremuan ("IDType") 2 gakoa eta "ID" eremuan haren Batasun barruko operatzaile zenbakia jarritz. "Herrialde kodea" eremua ez da nahitaez betetzekoa izango.

"Araubide bereziaren edo zerga garrantziaren gakoa" eremuan, 09 balioa jarri behar da. Bestalde, faktura horretan jasanarazitako kuota kalkulatu eta idatzi beharko da, eta "Kuota kengarria" eremua ere bete.

Kasu horietan, ez da jakinarazi behar "Subjektu pasiboaren alderantziketa" eremuaren bitartez: aitortzailea zergaren subjektu pasiboa denean soilik erabiltzen da, BEZaren Foru Dekretu Arauemailearen 84.Bat.2) eta 4) artikuluek xedatutakoaren arabera, eta Batasun barruko ondasun eta zerbitzu eskuraketak ez diren beste eragiketa batzuetatik eratorriak direnean soilik.

Ez da daturik erregistratuko Egindako Fakturen Erregistro Liburuan.

3.2.11. Nola erregistratzen da inportazio bat?

Eragiketa faktura motaren "F5" gakoarekin idazten da Jasotako Fakturen Erregistro Liburuan. Fakturaren zenbaki eta jaulkitze-data gisa, administrazio-dokumentu bakarrean edo H7an agertzen den erreferentzia zenbakia eta Aduana Administrazioaren onarpen data idatzi beharko dira, hurrenez hurren.

Administrazio-dokumentu bakar baten identifikazio zenbakiaren formatua honako hau da:

AAES00RRRRRAAAAAAAD

AA: administrazio-dokumentu bakarraren atzitze urtearen azken bi zenbakiak

PP: administrazio-dokumentu bakarraren herrialdea (edozein ISO kode, ez soilik Espainia)

00RRRR: aurkezteko esparrua

AAAAAAA: "zenbakitze sekuentziala" aurkezteko esparruaren barruan

D: baliozkotze digitua

Beste formatu batzuk onartzen ditu ISO kodea Espainiarena ez, baizik eta beste bat denean, baina kasu honetan BEZ kengarria zero izatea onartuko da soilik.

H7 baten identifikazio zenbakiaren formatua honako hau da:

AAESH7xxxxxxxxxxRD.

AA: administrazio-dokumentu bakarraren atzitze urtearen azken bi zenbakiak.

ES: ES finkoa.

H7x: aduana aitortpena (gaur egun x da soilik, baina edozein letra edo zenbaki izan daiteke)

aaaaaaaa: zenbakitze sekuentziala, letrak (Ñ eta O izan ezik) eta zenbakiak (0..9) erabiliz.

R: aitortpen mota

D: kontrol digitua

Bestalde, fakturaren xehetasunak idatzi beharko dira (tasa, zerga oinarria eta kuota jasanarazia), eta "Kuota kengarria" eremua ere bete beharko da.

Hornitzaileari dagozkion identifikazio datuetan, inportatzailearenak eta erregistro-liburuaren titularrarenak idatziko dira.

Inportazioei dagozkien datuak ematean, zehaztapen hauek hartu behar dira kontuan:

- "Zerga oinarri" gisa salgaiaren aduanako balioa adieraziko da, eta zenbateko hauek gehituko zaizkio: aplikazio-lurraldetik kanpo sortutako gainerako kargak, inportazio-kargak eta aduanako balioan sartzen ez diren gastu osagarriak, zeinak erkidego barruko lehen helmugaraino sortu diren (zerga oinarria, administrazio-dokumentu bakarraren 47 laukia).
- "Zerga kuota" gisa, ordaindu beharreko zenbatekoa adieraziko da.

Administrazio-dokumentu bakarra onartu osteko gastuak, inportazioaren ondoriozko BEZaren zerga oinarrian sartzen ez direnak, faktura bereizi gisa erregistratu beharko dira. Garraio bitartekariaren fakturatik, eman duen zerbitzuari dagokion zatia besterik ez da erregistratuko (ez bezeroari gastu osagarri gisa eskatzen zaion inportazio BEZaren zenbatekoa).

Administrazio-dokumentu bakarra erregistratu bada, ez da beharrezkoa atzerriko hornitzailearen faktura erregistratzea, non eta ez den aurretiaz jaso. Faktura horren datuak bidaltzen badira, faktura motaren "F6" gakoarekin adieraziko da, eta 13 gako erabiliko da "araubide bereziaren gako" eremuan ("Inportazio bati dagokion faktura (administrazio-dokumentu bakar bati lotu gabe jakinarazia)" jasotako fakturen erregistro-liburuan erregistratzean. Ez da bete beharko "Kuota jasanarazia" "Xehetasunak" blokearen barruan, eta "0" adieraziko da "Kuota kengarria" eremuan.

Adibidez: Inportazio eragiketa bat egin da Bartzelonako aduanaren bitartez, eta faktura hauek jaulki dira eragiketa horren ondorioz:

- 1.- Estatu Batuetako hornitzailearen faktura, 10.000 USDko OINARRIA duena; hau da, 6.719,55 €.
- 2.- Estatuko garraio bitartekariaren faktura, zenbateko hauek jasotzen dituen:

Aduanan likidatutako inportazioaren oinarria (ADBaren 47. laukia)....	7.250,00 €
-Hornitzailearen faktura.....	6.719,55 €
-Gainerako kontzeptuak (1).....	530,45 €
-Garraio-bitartekariaren prestazio salbuetsia (2).....	300,00 €
(1) Batasun barruko lehen helmugaraino sortutako kargak, gastu osagarriak, eta abar.	
(2) BEZaren FDA: 64. artikulua.	
- Inportazioko BEZ kuota.....	1.522,50 €
- Garraio-bitartekariaren zerbitzu-prestazioaren zerga oinarria.....	500,00 €
- Kuota	105,00 €

Jasotako fakturen erregistro-liburuan idazpen hauek egin behar dira:

1. ADBa, identifikazio zenbaki gisa erreferentzia zenbakia, zerga oinarri gisa 7.250 € eta kuota gisa 1.522,50 € idatziz. (Ez da erregistratuko atzerriko hornitzailearen faktura).
2. Garraio-bitartekariaren faktura, baina lotutako eta salbuetsi gabeko zerbitzu prestazioa soilik idatziz: zerga oinarria (500 €) eta kuota (105 €).

Garraio-bitartekariak gastu osagarri gisa edo inportatzailearen kontura egindako ordainketa gisa fakturatutako kontzeptuak ez dira bidali beharko.

3.2.12. Inportazioarekin parekatutako eragiketak direnean, zer informazio eman behar da?

BEZa administrazio-dokumentu bakarrarekin likidatzen denean, eragiketa faktura motaren "F5" gakoarekin idatziko da Jasotako Fakturen Erregistro Liburuan. Fakturaren zenbaki eta jaulkitze-data gisa, administrazio-dokumentu bakarrean agertzen den erreferentzia zenbakia eta Aduana Administrazioaren onarpen data idatzi beharko dira, hurrenez hurren. Era berean, administrazio-dokumentu bakarra erregistratuko da ondasunen inportazioa salbuetsita badago, aduanaz bestelako gordailuaren araubideari lotuta egoteagatik.

Zerga oinarri gisa salgaiaren aduanako balioa adieraziko da, eta zenbateko hauek gehituko zaizkio: aplikazio-lurraldetik kanpo sortutako gainerako kargak, inportazio-kargak eta aduanako balioan sartzen ez diren gastu osagarriak, zeinak erkidego barruko lehen helmugaraino sortu diren (zerga oinarria, administrazio-dokumentu bakarraren 47. laukia).

Zerga kuota gisa, administrazio-dokumentu bakarrean adierazitako ordaindu beharreko zenbatekoa idatziko da; inportazioa salbuetsita badago, zero izango da.

3.2.13. Nola erregistratzen dira 8/2013 Foru Dekretuak onartutako Fakturazio Erregelamenduaren 16.1 artikuluan aipatzen diren nekazaritza, basogintza edo arrantzako konpentsazioen ordainagiriak?

Ordainagiria jasotako fakturen erregistro-liburuan adieraziko du jaulkitzaileak, “F6” faktura mota adieraziz –kontabilitateko frogagiriak– eta araubide bereziaren edo zerga garrantziaren “02” gakoa idatziz.

Kompentsazioa kalkulatzeko erabili den oinarria idatziko da zerga oinarri gisa, eta kontraprestazioaren zenbateko osoa, aldiz, fakturaren guztizko gisa.

“Zerga tasa” eta “kuota jasanarazia” eremuak hutsik utziko dira, eta “kompentsazioaren ehunekoa” eta “kompentsazioaren zenbatekoa” beteko dira; kuota kengarri gisa, kompentsazioaren zenbatekoa idatziko da.

3.2.14. Erregistratu behar al da kreditu-entitate batengandik jasotako finantza-zerbitzu salbuetsi bati dagokin ordainagiria, zerbitzu horretarako ez bada nahitaezkoa fakturarik jaulkitzea, 8/2013 Foru Dekretuaren 3.2 artikulua arabera?

Ez, ordainagiri hori ez delako fakturatzat hartzen.

3.2.15. Erregistratu behar al da aseguru-entitate batengandik jasotako aseguru-eragiketa salbuetsi bati dagokin ordainagiria, eragiketa horretarako ez bada nahitaezkoa fakturarik jaulkitzea, 8/2013 Foru Dekretuaren 3.2 artikulua arabera?

Ez, ordainagiri hori ez delako fakturatzat hartzen.

3.2.16. Nahitaezkoa al da kuota kengarriari buruzko informazioa ematea?

Bai. Hainbanaketa aplikatzen bada, behin-behineko kenkari ehunekoaren arabera dagokion kuota kengarria idatzi beharko da.

3.2.17. Zer informazio jasoko da “likidazio aldia” blokean?

Erregistratutako faktura zer ekitalditan eta likidazio alditan jaso den, kenketa egin ahal izateko.

Faktura zuzentzaileen kasuan, adierazi behar da zer ekitalditan eta zergalditan zuzendu den hasierako kenkaria, BEZaren 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 114. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Adibidez:

A enpresariak B enpresariari salgaiak saldu zizkion 2025eko irailaren 25ean. A enpresariak irailaren 26an bidali du faktura. B enpresariak irailaren 30ean jaso du faktura, eta urriaren 10ean egin du kontabilitateko erregistroa. Bi aukera daude:

a) B enpresariak urriaren 15ean bidaliko ditu fakturaren erregistroak, eta honela adieraziko ditu jasotako fakturen erregistro-liburuan: Ekitaldia: 2025; Aldia: 09.

a) B enpresariak urriaren 16an bidaliko ditu fakturaren erregistroak, eta honela adieraziko ditu jasotako fakturen erregistro-liburuan: Ekitaldia: 2025; Aldia: 10.

Kontuan hartu behar da egutegiko lau/zortzi eguneko epetik kanpo utziko direla larunbatak, igandeak eta Gipuzkoako lurralde osorako adierazitako jaiegunak. Kenketa egin ondoko hilaren 15eko muga-eguna larunbata, igande edo jaiegun nazionala bada, hurrengo lehen egun baliodunera pasatuko da.

3.2.18. Hainbanaketari buruzko informazioa eman behar da BIH sistemaren bitartez?

Aplikatu den hainbanaketa portzentajeari buruzko informazioa dagokion BEZeko aitorpen-likidazio ereduaren bitartez eman behar da.

Hala ere, BIH sistemari dagokionez, honako hau hartu beharko da kontuan:

- “Kuota kengarria” eremua behin-behineko hainbanaketa aplikatuz kalkulatu da.
- Inbertsio-ondasunen kasuan, urtero eman beharko da dagozkion erregularizazioei buruzko informazioa inbertsio-ondasunen erregistro liburuan.

3.2.19. Entitate batek onartua badu aduanan helbideratzea erraztea (hainbat ADBtako zor laburbiltzailea sortzen duen izapidea), nola egiten da erregistroa?

ADB bakoitza F5 gakoarekin eta onarpen datarekin erregistratu behar da. Dena den, ADBak data berean erregistratzen badira kontabilitateari dagokionez, informazioa emateko epea berbera izango da, eta aldi berean bidali ahal izango dira ADB guztiak.

3.2.20. Nola erregistratzen da faktura bat, araubide bereziaren gako desberdinak dituzten eragiketak agertzen direnean?

Sistemak gako hauek konbinatzeko aukera ematen du:

Gako bateragarriak	
07 - Kutxa irizpidearen araubide berezia	01.- Araubide orokorra
	03 - Ondasun erabilien araubide berezia
	05 - Bidaia agentzien araubide berezia
	12 - Negozio-lokalen errentamendua
05 - Bidaia agentzien araubide berezia	01.- Araubide orokorra
	06 - BEZeko entitate taldeen araubide berezia (maila aurreratua)

Gako bateragarriak	
	07 - Kutxa irizpidearen araubide berezia
	08 - Kanarietako zeharkako zerga orokorrari / ekoizpen, zerbitzu eta inportazioaren gaineko zergari lotutako eragiketak
	12 - Negozio-lokalen errentamendua
	05 - Bidaia agentzien araubide berezia
	06 - BEZeko entitate taldeen araubide berezia (maila aurreratua)
12 - Errentamendua	07 - Kutxa irizpidearen araubide berezia
	08 - Kanarietako zeharkako zerga orokorrari / ekoizpen, zerbitzu eta inportazioaren gaineko zergari lotutako eragiketak
03 - Ondasun erabilien araubide berezia	01.- Araubide orokorra
01.- Araubide orokorra	08 - Kanarietako zeharkako zerga orokorrari / ekoizpen, zerbitzu eta inportazioaren gaineko zergari lotutako eragiketak
09 – Batasun barruko ondasun eta zerbitzu erosketak	01.– Araubide orokorra

07 gakoak (Kutxa-irizpidea) jakinaraziko den lehen gakoa izan behar du beti.

05 gakoa (bidaia agentziak) jakinarazi beharreko lehen gakoa izango da, non eta ez den 07 gakoarekin batera agertzen (Kutxa irizpidearen araubide berezia).

06 gakoa (Entitate multzoaren araubide berezia – maila aurreratua) jakinarazi beharreko lehen gakoa izango da 12 gakoarekin batera agertzen denean.

03 gakoa (Ondasun erabilien, arte objektuen, zaharinen eta bilduma objektuen araudi berezia aplikatzen zaien eragiketak) jakinarazi beharreko lehen gakoa izango da 01 gakoarekin batera adierazten denean.

Konbinazio horrek ez du esan nahi gako bakoitzeko zenbatekoak banakatu behar direnik, baina gogoan hartu beharko dira jakinarazi beharko diren eremu gehigarri guztiak, haietako bakoitza kontuan harturik.

09 gakoa (Batasun barruko ondasun eta zerbitzu eskuratzeak) jakinarazi beharreko lehen gakoa izango da 01 gakoarekin batera agertzen denean. Bi gakoak konbinatzen badira, BEZ kengarriaren laukitxoetako zenbatekoak berrikusi beharko dira, bikoiztutako zenbatekoak ez jartzeko.

3.2.21. Zer kasutan erabili behar da “LC - Aduanak Likidazioa” gakoa?

Gako horrekin identifikatu beharko dira Aduana Aitorpenaren zuzenketak, inportazioaren BEZaren likidazio osagarriak badira. Likidazioaren identifikazio zenbakia adieraziko da faktura zenbaki gisa (honela hasten da: LC, QZC, QRC, QCL, Q7C, A01 edo A02).

Zenbateko horiek atzeratu egin ahalko dira zergaren autolikidazioan (baldin eta inportazioaren BEZa atzeratzea aukeratu bada) eta, gainera, kenkarirako eskubidea sor dezakete.

3.2.22. Nola erregistratzen da ADB baten zuzenketa?

Bere gako bakar berriarekin erregistratuko da zuzendutako ADBa; hartan, bidalketa data soilik aldatuko da (zuzendutako ADBaren onarpen data izango da). Zerga oinarria, kuota jasanarazia, kuota kengarria eta zenbateko osoa jasotzeko, zuzendutako edo aldatutako zenbatekoen eta hasierako ADBan erregistratutakoen arteko aldea idatziko da.

3.2.23. Inbertsio ondasun bat eskuratzeagatik jasotako faktura bat erregistratzean, nahitaezkoa da “inbertsio ondasuna” eremua betetzea?

Ez da derrigorrezkoa. “Inbertsio ondasuna” eremua aukerakoa da betiere.

3.2.24. Noiz bete behar dira “Ondorengo aldi batean kentzeko”, “Kenkariaren ekitaldia” eta “Kenkariaren aldia” eremuak?

“Ondorengo aldi batean kentzeko”, “Kenkariaren ekitaldia” eta “Kenkariaren aldia” eremuak, aukerakoak betiere, jasanarazitako kuota kengarriak “Likidazio aldia” blokean adierazitakoaren osteko aldi batean kentzen direnean soilik bete behar dira. “Kenkariaren ekitaldia” eta “Kenkariaren aldia” eremuak kenkari-eskubidea zer ekitaldi eta alditan baliatuko den adieraziz beteko dira.

3.2.25. Nola erregistratzen da fakturazio akordio baten arabera zenbakirik ez duten fakturak?

Jasotzaileak F1 gakoarekin erregistratu behar du faktura eta zenbaki sekuentziala esleitu behar dio; zenbakia berariazkoa izan behar da, hau da, ezin dira egon bidaltzaile eta data bereko bi faktura zenbaki berarekin.

3.2.26. Faktura zuzentzailea jasotzen duenak “Rx” gakoarekin erregistratu behar du?

Jasotako fakturen kasuan, eremu hori aukerakoa da.

Nolanahi ere, jasotako faktura zuzentzailea ordezkpenekoa bada eta bertan zuzenketaren ondoriozko zenbateko zuzenak ez ezik zuzendutako zenbatekoak ere

agertzen badira eta zenbateko horiek zero ez badira, horren berri eman behar da erregistroan.

3.3. INBERTSIO ONDASUNEN ERREGISTRO LIBURUA

3.3.1. Zer eragiketa sartzen dira?

Hainbanaketaren araua aplikatu behar duten subjektu pasiboek soilik eramango dute liburu hau.

Eman beharreko informazioa hau da: ondasunaren identifikazioa, noiz hasi den erabiltzen ondasuna, urteko behin betiko hainbanaketa, eta kenkarien urteko erregularizazioa. Gainera, ondasuna entregatu bada, baja eman beharko zaio inbertsio ondasunari, eta entrega eta dagokion erregularizazioa justifikatzen duen fakturaren erreferentzia idatzi.

Liburu hori urtero informatuko da, eta bertan jasotzen den informazioa egindako eta jasotako fakturen liburuetan inbertsio ondasunen erosketa eta salmentei buruz erregistratutakoaren osagarri da.

BIHn sartzen diren urtetik aurrera erregularizazio aldian dauden inbertsio ondasunei egin beharreko erregistro guztien idazpenak sartuko dira, ondasuna noiz eskuratu den gorabehera.

3.4. BATASUNAREN BARRUKO ERAGIKETA JAKIN BATZUEN ERREGISTRO LIBURUA

3.4.1. Zer eragiketa sartzen dira?

Liburu honetan bi eragiketa mota erregistratzen dira soilik, BEZaren Erregelamenduaren 66. artikuluan aipatutakoak, hau da, honako hauek soilik:

1. BEZaren 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 70.1.7 artikuluan adierazitako aditu txostenak edo lanak egiteko ondasunen bidalketa edo harrera.
2. BEZaren 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 9.3 eta 16.2 artikuluetan jasotako ondasun transferentziak eta Batasun barruko ondasun eskuraketak.
3. BEZaren 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 9.bis artikuluan aipatutako kontsignan utzitako ondasunen salmenta akordio baten barne dauden ondasunak bidalketak edo harrerak.

Aurreko 1. eta 2. puntuetan deskribatutako eragiketei dagokienez:

“D” gakoa erabiliko da aitortzailea baldin bada eragiketaren xede diren ondasunen hartzailea, eta “R” gakoa, berriz, aitortzailea baldin bada eragiketaren xede diren ondasunen igorlea.

Eragiketa faktura bidez dokumentatzen bada, egindako fakturen erregistro liburuan edo jasotako fakturen erregistro liburuan ageri behar da, kasuaren arabera.

Liburu horretan erregistratutako eragiketetan sortzapena badago (bereziki, Batasun barruko ondasun-eskuratzeekin parekatzen diren eragiketei dagokienez), jasotako fakturen erregistro liburuan ere erregistratu beharko da eragiketa, 09 gakoa erabiliz.

Batasun barruko ohiko ondasunen eskuratzeei eta ohiko ondasunen entreegi dagokienez, jasotako eta egindako fakturen erregistro liburuetan jaso behar dira eragiketa horiek, hurrenez hurren, 3.1.9 eta 3.2.9 ohiko galderetan adierazitako moduan.

Kasu horietan, ez dira inola ere hartzailearen “D” gakoa edo igorlearen “R” gakoa erabiliko, Batasun barruko eragiketa jakin batzuen erregistro liburuan soilik erabiltzen baitira gako horiek.

3. puntuan azaltzen diren eragiketak 3.4 ataleko ohiko galderen erantzunetan zehazten dira.

3.4.2. Nola erregistratzen da kontsignan utzitako ondasunak saltzeko akordio baten esparruan egindako ondasunen transferentzia?

Saltzaileak “V” aitortzaile gakoarekin erregistratu beharko ditu bloke funtzional hauek:

- Erregistroaren identifikazioa: ekitaldia, aldia eta saltzaileak esleitutako zenbakia, erregistroa modu unibokoan identifikatzen duena.
- Eragiketa mota: salgaien bidalketen gakoa 01 da.
- Kontrako alderdia: bezeroaren identifikazioa. IFZ-BEZ eduki behar du, hortaz, identifikazio mota 02 da.
- Gordailua: biltegiaren helbidea. Salgaiak gordailuan utziko diren biltegia ez badu erosleak kudeatzen, gordailuari dagokion bloke funtzionalean, helbidea ez ezik, gordailuzainaren identifikazioa ere adierazi beharko da, izen-abizenak edo sozietatearen izena eta identifikazio zenbakia (IFZ-BEZ) adieraziz.
- Bidalketari eta harrerari buruzko informazioa: adierazi beharko dira ondasunen balioa, salgaien jatorriko eta helmugako estatu kideak, bidalketa data, iriste data eta ondasunen deskribapena.

1. adibidea: A enpresariak zerga aplikatzen den lurraldean du egoitza, eta B enpresariaren egoitza Alemanian dago (NIVA: DE111111111). 202X-1 datan, kontsignan utzitako ondasunak saltzeko akordioa sinatu zuten bi enpresariak. Akordio horren arabera, A enpresariak hitz ematen du B enpresariaren esku utziko dituela ondasun batzuk, Alemanian, **B-k kudeatutako biltegi batean**; B enpresariak, aldiz, hitz ematen du biltegian sartzen direnetik 12 hilabete igaro baino lehen eskuratuko dituela ondasun horiek.

Biltegiaren helbidea (C/XXXXXXX) da.

202X(e)ko martxoaren 1ean, zenbait ondasun (10.000 unitate) bidali zituen Alemanian dagoen biltegiara, 10.000 euroko zenbatekoan. Ondasunak martxoaren 3an iritsi ziren biltegiara.

Ondasun transferentzia honela erregistratuko da:

Jakinarazpen mota: A0.

Aitortzailearen gakoa: V

Aitortutakoaren erregistro identifikazioa

Ekitaldia: 202X

Aldia: 03

Erregistroaren identifikazioa: 202X-01 (zergadunak berak nahi duen zenbakia esleituko dio bidalitako erregistro bakoitzari modu unibokoan identifikatu ahal izateko)

Eragiketa mota: 01

Kontrako alderdiaren blokea:

IDtype: 02

ID: DE111111111

Gordailuaren blokea:

Biltegiaren helbidea: (C/XXXXXXX).

Bidalketaren/harreraren informazioa:

Ondasunen balioa: 10.000

Jatorriko estatu kidea: ES

Helmugako estatu kidea: DE

Bidaltze-data: 202X/03/01

Jasotze-datza: 202X/03/03

Kopurua: 10.000

Deskribapena: Ondasunak

2. adibidea: A enpresariak zerga aplikatzen den lurraldean du egoitza, eta B enpresariaren egoitza Alemanian dago (NIVA: DE111111111). 202X-1 datan, kontsignan utzitako ondasunak saltzeko akordioa sinatu zuten bi enpresariak. Akordio horren arabera, A enpresariak hitz ematen du B enpresariaren esku utziko dituela ondasun batzuk, Alemaniako biltegi batean. Biltegi hori C-k (NIVA DE222222222) **kudeatzen du**. B enpresariak hitz ematen du biltegian sartzen direnetik 12 hilabete igaro baino lehen eskuratuko dituela ondasun horiek.

Biltegiaren helbidea (C/XXXXXXX) da.

202X(e)ko martxoaren 1ean, zenbait ondasun (10.000 unitate) bidali zituen Alemanian dagoen biltegiara, 10.000 euroko zenbatekoan. Ondasunak martxoaren 3an iritsi ziren biltegiara.

Ondasun transferentzia honela erregistratuko da:

Jakinarazpen mota: A0.

Aitortzailearen gakoa: V

Aitortutakoaren erregistro identifikazioa

Ekitaldia: 202X

Aldia: 03

Erregistroaren identifikazioa: 202X-01 (zergadunak berak nahi duen zenbakia esleituko dio bidalitako erregistro bakoitzari modu unibokoan identifikatu ahal izateko)

Eragiketa mota: 01

Kontrako alderdiaren blokea:

IDtype: 02

ID: DE111111111

Gordailuaren blokea:

Idtype:02

ID: DE222222222

Biltegiaren helbidea: (C/XXXXXXX).

Bidalketaren/harreraren informazioa:

Ondasunen balioa: 10.000

Jatorriko estatu kidea: ES

Helmugako estatu kidea: DE

Bidaltze-data: 202X/03/01

Jasotze-datza: 202X/03/03

Kopurua: 10.000

Deskribapena: Ondasunak

3.4.3. Kontsignan utzitako ondasunak saltzeko akordio baten esparruan ondasun transferentzia egin delarik, nola erregistratzen da ondorengo ondasun entrega?

Saltzaileak "V" aitortzaile gakoarekin erregistratu beharko ditu bloke funtzional hauek:

- Erregistroaren identifikazioa: ekitaldia, aldia eta saltzaileak berak esleitu nahi izan dion zenbakia, erregistroa modu unibokoan identifikatzen duena.
- Eragiketa mota
- Lehen bidalketa: ekitaldia, aldia eta saltzaileak ondasunen transferentziari edo lehen bidalketari esleitutako identifikazio zenbakia.
- Azken helmuga: ondasunen deskribapena eta kopurua, eragiketaren data, eskuratzaillearen identifikazioa, zerga oinarria eta prezio unitarioa adierazi beharko dira.

Eragiketa mota eta azken helmuga bloke funtzionaletan idatzi beharreko datuak desberdinak izango dira, kasuistikaren arabera:

a) Ondasunen hartzaile den enpresariari ematen bazaizkio

Saltzaileak bi erregistro bidaliko ditu, bata Batasun Barruko Eragiketa jakin batzuen Erregistro Liburura (BBEEL) eta bestea EFELera.

Saltzaileak bloke funtzional hauetan erregistratu behar ditu:

- Eragiketa mota: salgaien entregaren gakoa 03 da.

- Azken helmuga: ondasunen deskribapena eta kopurua, eragiketaren data (erosleak zer egunetan eraman dituen salgaiak), eskuratzaillearen IFZ-BEZ bidezko identifikazioa (identifikazio-mota: 02), zerga oinarria eta prezio unitarioa.

Gainera, saltzaileak Egindako Fakturen Erregistro Liburuan (EFEL) erregistratu beharko du salmenta, Batasun barruko entrega gisa.

3. adibidea: 3.4.2 ohiko galderako 1. adibideko B enpresariak ondasunen 5.000 unitate eskuratu zituen apirilaren 5ean. Ondasunak 6.000 euroan eskuratu zituen.

A enpresariak bi erregistro bidaliko ditu, bata BBEE Lera eta bestea EFELera:

BBEE Lera bidalitako 1. erregistroa:

Jakinarazpen mota: A0.

Aitortzailearen gakoa: V

Aitortutakoaren erregistro identifikazioa

Ekitaldia: 202X

Aldia: 04

Erregistroaren identifikazioa: 202X-02 (zergadunak berak nahi duen zenbakia esleitu dio bidalitako erregistro bakoitzari modu unibokoan identifikatu ahal izateko. Ezin da transferentziaren erregistro-identifikazioaren berdina izan)

Eragiketa mota: 03.

Lehen bidalketaren identifikazioa

Ekitaldia: 202X

Aldia: 03

Lehen bidalketaren identifikazioa: 202X-01

Bloke honek bat etorri behar du ondasunen hasierako transferentziari dagokion erregistroaren identifikazio blokearekin

Azken helmugaren blokea

Ondasunen deskribapena: XXXX

Kopurua: 5.000

Deklaratutako eragiketaren data: 202X/04/05

IDtype:02

Id: DE111111111

Zerga oinarria / balioa:6.000

Prezio unitarioa: 1,2

2. erregistroa EFELen:

A enpresariak Batasun barruko entrega gisa erregistratu beharko du salmenta EFELen.

b) Enpresaburu hartzaileak ez baditu iritsi eta hurrengo hamabi hilabeteetan eskuratzen ondasunak

Saltzaileak bi erregistro bidaliko ditu BBEEra.

Saltzaileak bloke funtzional hauetan erregistratu behar ditu:

- Eragiketa mota: hasierako hartzaileak edo beraren ordezkari batek ez baditu 12 hilabeteetan eskuratzen salgaiak, 08 gakoa ipini behar da.
- Azken helmuga: ondasunen deskribapena eta kopurua, eragiketaren data (salgaiak iritsi ondorengo hamabi hilabeteako aldia amaitu eta hurrengo eguna), zerga oinarria eta prezio unitarioa.

Gainera, saltzaileak Batasun Barruko Eragiketa jakin batzuen Erregistro Liburuan (BBEEL) jaso beharko du ondasunen transferentzia.

4. adibidea: 3.4.2 ohiko galderaren 1. adibideko enpresariak ez ditu gainerako ondasunak 12 hilabete epean eskuratu (gogoan izan 3. adibidean enpresariak ondasunen 5.000 unitate eskuratu zituela. Hortaz, transferitutako 10.000 unitateetatik 5.000 falta dira).

BBEELera bidalitako 1. erregistroa

Jakinarazpen mota: A0.

Aitortzailearen gakoa: V

Aitortutakoaren erregistro identifikazioa

Ekitaldia: 202X+1

Aldia: 03

Erregistroaren identifikazioa: 202X+1-01 (zergadunak berak nahi duen zenbakia esleituko dio bidalitako erregistro bakoitzari modu unibokoan identifikatu ahal izateko. Ezin du bat etorri transferentziaren erregistro-identifikazioarekin, ez eta beste erregistro bati esleitutako beste ezeinekin ere)

Eragiketa mota: 08

Lehen bidalketaren identifikazioaren blokea:

Ekitaldia: 202X

Aldia: 03

Lehen bidalketaren identifikazioa: 202X-01

Bloke honek bat etorri behar du ondasunen hasierako transferentziari dagokion erregistroaren identifikazio blokearekin (ikus 1. adibidea)

Azken helmugaren blokea:

Ondasunen deskribapena: XXXX

Kopurua: 5.000

Deklaratutako eragiketaren data: 202X/03/05+1

IDtype: Hutsik

Id: Hutsik.

Zerga oinarria / balioa: 5.000

Prezio unitarioa: 1

BBEELera bidalitako 2. erregistroa:

Hamabi hilabeteko epea igarotakoan, B-k ez baditu eskuratu ondasunak, lotutako ondasun transferentzia bat sortzen da, eta A-k BBEELen erregistratu beharko du (ikus 3.4.1 ohiko galdera)

c) Ondasunak iritsi eta hurrengo hamabi hilabeteetan horiek jaso behar dituen enpresaria beste batek ordezkatzan badu, eta saltzaileak kontsignan dauden ondasunak saltzeko akordio bat sinatzen badu harekin.

Saltzaileak bloke funtzional hauetan erregistratu behar ditu:

- Eragiketa mota: hasierako hartzailea ordezkatzan bada, gakoa 02 da.
- Hasierako hartzailearen ordezkoa: ordezkoa identifikatzea. IFZ-BEZ eduki behar du, hortaz, identifikazio mota 02 da.
- Bidalketaren eta harreraren informazioa: ondasun kopurua adierazi eta deskribapena eman beharko da.

5. adibidea: 202X(e)ko irailaren 6an, 3.4.2 ohiko galderan agertzen den 1. adibideko A eta B enpresariak 202X-1ean sinatutako akordioa deuseztatu zuten. Jada transferitutako 10.000 unitateetatik, B enpresariak 5.000 eskuratu zituen apirilaren 5ean (ikus 3.4.3 ohiko galdera).

A enpresariak kontsignan dauden ondasunak saltzeko akordio bat dauka sinatuta C enpresariarekin (IFZ: DE333333333). 202X(e)ko irailaren 6an bertan, haren eskura jarri ditu 202X(e)ko martxoaren 1ean transferitutako ondasunen gainerako 5.000 unitateak.

A enpresariak erregistro hau bidali behar du BBEELera:

Jakinarazpen mota: A0.

Aitortzailearen gakoa: V

Aitortutakoaren erregistro identifikazioa

Ekitaldia: 202X

Aldia: 09

Erregistroaren identifikazioa: 202X-03 (zergadunak berak nahi duen zenbakia esleituko dio bidalitako erregistro bakoitzari modu unibokoan identifikatu ahal izateko. Ezin du bat etorri transferentziaren erregistro-identifikazioarekin, ez eta beste erregistro bati esleitutako beste ezeinekin ere)

Eragiketa mota: 02

Hasierako hartzailearen ordezkorearen blokea:

Idtype:02

Id: DE333333333

Lehen bidalketaren identifikazioaren blokea:

Ekitaldia: 202X

Aldia: 03

Lehen bidalketaren identifikazioa: 202X-01

Bloke honek bat etorri behar du ondasunen hasierako transferentziari dagokion erregistroaren identifikazio blokearekin (ikusi 3.4.2 ohiko galderaren 1. adibidea)

Bidaltze eta jasotze informazioaren blokea:

Ondasunen balioa: Hutsik

Jatorriko estatu kidea: Hutsik

Helmugako estatu kidea: Hutsik

Bidalketa-data: Hutsik

Jasotze-datza: Hutsik.

Kopurua: 5.000

Deskribapena: Ondasunak

Ordezte-data: 202X/09/06

d) Iritsi eta hurrengo hamabi hilabeteetan, ondasunak zergaren aplikazioko lurraldera itzultzen badira.

Saltzaileak bloke funtzional hauetan erregistratu behar ditu:

- Eragiketa mota: salgaiak Espainiara (penintsula eta Balear Uharteak) itzultzen badira, gakoa 07 da.
- Azken helmuga: ondasunen deskribapena eta kopurua, eragiketaren data (salgaiak zein egunetan itzuli diren) eta balioa jaso beharko dira.

6. adibidea: 3.4.2 ohiko galderan agertzen den 1. adibideko A enpresariak, 202X-1(e)ko apirilaren 1ean, zergaren aplikazioko lurraldera itzuli ditu transferitutako 10.000 unitateak; B-k ez du eskuratu transferitutako ondasun bat bera ere ez.

A enpresariak erregistro hau bidali behar du BBEE Lera:

Jakinarazpen mota: A0.

Aitortzailearen gakoa: V

Aitortutakoaren erregistro identifikazioa

Ekitaldia: 202X

Aldia: 04

Erregistroaren identifikazioa: 202X-1-04 (zergadunak berak nahi duen zenbakia esleituko dio bidalitako erregistro bakoitzari modu unibokoan identifikatu ahal izateko. Ezin du bat etorri transferentziaren erregistro-identifikazioarekin, ez eta beste erregistro bati esleitutako beste ezeinekin ere)

Eragiketa mota: 07

Lehen bidalketaren identifikazioaren blokea:

Ekitaldia: 202X

Aldia: 03

Lehen bidalketaren identifikazioa: 202X-01

Bloke honek bat etorri behar du ondasunen hasierako transferentziari dagokion erregistroaren identifikazio blokearekin (ikusi 3.4.2 ohiko galderaren 1. adibidea)

Azken helmugaren blokea:

Ondasunen deskribapena: XXXX

Kopurua: 10.000

Deklaratutako eragiketaren data: 202X/04/01.

IDtype: Hutsik

Id: Hutsik

Zerga oinarria / balioa: 10.000.

Prezio unitarioa: Hutsik.

e) Iritsi eta hurrengo hamabi hilabeteetan, ondasunak beste herrialde batera bidaltzen badira (EBkoa izan daiteke, edo ez)

Saltzaileak bi erregistro bidaliko ditu BBEEra.

Saltzaileak bloke funtzional hauetan erregistratu behar ditu:

- Eragiketa mota: salgaiak beste herrialde batera bidaltzen badira, gakoa 05 da.
- Azken helmuga: ondasunen deskribapena eta kopurua, eragiketaren data (salgaiak zein egunetan bidali diren beste herrialdera), zerga oinarria eta prezio unitarioa jaso beharko dira.

